

# Interneten nabigatu sare elektrikoa erabiliz

**Josu Waliño Pizarro**  
Informatikan lizentziatua

**Gero eta bide gehiago dago Internetera konektatu ahal izateko: hasieran telefono arruntetik egiten genuena, pixkanaka ISDN, ADSL eta antzekoen bidez egin genezakeela jakin genuen. Orain, Iberdrolak aukera berria eskaintzen digu: sare elektrikoa erabiliz, abiadura handiz Internetera konektatzeko aukera.**

MADRILEKO ETXE BATZUETAN HASI DIRA LEHEN PROBAK EGITEN, eta laster batean estatu osoan eskainiko omen dute zerbitzua. Zerbitzu honen bidez, abiadura handiko Interneteko atzipena eskainiko



ARTXIBOKOA

dute, 2 megabit segundoko abiadura-ko konexioarekin eta betiere etxean dugun sare elektriko arrunta erabiliz. Gainera, beraien helburua hori baino gehiago omen da. Esan dutenez, hila-bete gutxitan 10 megabit segundoko abiadura eskaintzera iritsi nahi omen dute.


Sistema hau erabiliz, etxeko edozein entxuferen bidez konektatu ahal izango gara Internetera, eta ez hori bakarrik, gailu bat baino gehiago egon ahal izango dira aldi berean konektatuta etxe berean inolako arazorik gabe. Sistema hau eskaini ahal izateko Israelgo Nisko Advanced Metering Solutions

LTD enpresarekin egin du hitzarmena Iberdrolak. Enpresa hau era honetako zerbitzuak eskaintzen dituen bakarra omen da munduan.

*“etxeko edozein entxuferen bidez konektatu ahal izango gara Internetera 2 megabit segundoko abiaduraz”*

### **Abiadura handia prezio arruntean**

Orain egiten ari diren probak amaitutakoan jakin ahal izango omen du Iberdrolak zein preziotan eskaini zerbitzu hau, baina nonbait prezio arruntean eskaintzeko gai izango dira. Ez omen da, gainera, oso harrigarria kable elektrikoek baliatuz datuak erabiltzearen kontu hori, lehen ere egiten delako, gogoratu bestela etxeetan haurrak gela batean lotan daudela zaintzeko erabili ohi diren interfonoak. Horietako askok ere kable elektrikoa erabiltzen dute aho-tsa eramateko eta, beraz, antzeko sistema da Interneterako erabiliko dutena. Sistema hau ez da hain berria gainera, Iberdrola hemen aztertzen ari den bezala, Alemanian, Ingalaterran eta Estatu Batuetan ere aztertzen ari baitira.

Informazioa sare elektrikoaren bidez bidaltzeak abantaila handi bat dakar: dagoeneko milioika etxeetan instalatuta dagoen kableatua erabili ahal izango dela abiadura handiko Internet lortzeko. Horrelako sistema bat ezartzeko, Iberdrolak ez luke kableatu berria ezarri beharrik izango eta, beraz, inbertsioa ez litzateke hain handia. 


## **Bluetooth: atzeratzen ari den etorkizuna**

Duela pare bat hilabete azaldu genuen zer den Bluetooth sistema. Hainbat enpresaren artean garatu duten sistema honen bidez, egun hain zabalduek dauden gailu txikiak eta ordenagailuak konektatu ahal izango dira kablerik gabe. Sistema horrek irrati-maiztasunak erabiltzen ditu gailuak elkarrekin komunika daitezen eta megabit bat segundoko abiadura ematen du. Horrela, sare txikiak sor daitezke inolako kablerik erabili gabe norberak etxean dituen gailu guztiak konektatuz.

Teknologia hau erabiltzen duten gailuak iazko irailean ikusi behar omen genituen merkatuan, baina oraindik ez da horrelakorik agertu. Arazoa ez da teknologia ez dagoela behar bezala garatuta, egon badago eta. Arazoa bestelakoa da. Duela gutxi arte ez zegoen gailu horien arteko funtzionamendua homologatzen zuen araudirik prest eta, horrela, fabrikatzaile bakoitzak arazo teknikoak bakoitzak bere erara konpontzen zituen. Horrela ez zen bermatzen marka desberdinetako gailuen arteko komunikazio zuzena. Hori dela eta, urte honen amaiera arte ez dugu honelako gailurik ikusiko.



ARTXIBOKOA



ARTXIBOKOA

Garestia ere ez omen da izango teknologia hori. 2002 urtean, gailu batek teknologia hori izateagatik produktuari gehitu beharko zaion kostea 1.000 pta. (40 libera) ingurukoa izatea espero da. Baina gaur egun dauden Bluetooth txartelak ez dira hain merkeak. Arazoa da konexiorako bi zirkuitu dituztela: bat kanpo-komunikazioa ahalbidetzeko irrati bidezkoa, eta bestea barne-komunikaziorakoa. Urte-bu-kaeran aterako diren gailuek guztia integratuko duen txip bakarra izango dute eta horren ekoizpena handia izango denez, asko merkatzea espero da.